
LEZOKO HIRI-MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO PLANA

HERRITARREN EKARPENEN TXOSTENA

01 Bertsioa

2021eko uztaila



INGARTEK
Inteligencia en movimiento

Venezuela Plaza, 1
48001 Bilbao, Bizkaia
T. 94 655 62 23
F. 94 657 43 04
www.ingartek.com

Aurkibidea

01. AURREKARIAK	3
01.1 Parte- hartze fitxa:	3
02. MUGIKORTASUNAREN IKUSPUNTUA	4
02.1 Lezo barruan oinez	4
02.2 Lezon txirringaz	4
02.3 Garraio publikoa	5
02.4 Garraio pribatua	5
03. ONDORIOAK	6

01. Aurrekariak

Dokumentu honetan, herritarren parte-hartze inkestan aipatutako ideia nagusiak bildu dira.

Galdetegiak aurretik egindako parte-hartze prozesuen ildo berean egin da, mugikortasunaren lau ardatz nagusiei buruz galdetuz: oinezkoak, txirringak, garraio publikoa eta auto pribatua.

01.1 Parte- hartze fitxa:

Epea: 2 aste.

Tokia: Online eta udaletxean modu presentzian betetzeko aukera.

Hizkuntza: Elebiduna.

Parte-hartzaile kopurua: 40 erantzun online eta erantzun presentzial 1.

Galdetegia:

- Zer uste duzu dela **oinezko** mugikortasunaren gauzarik **onena**?
- Zer uste duzu dela **oinezko** mugikortasunaren gauzarik **txarre**na?
- Zer uste duzu dela **txirringa bidezko** mugikortasunaren gauzarik **onena**?
- Zer uste duzu dela **txirringa bidezko** mugikortasunaren gauzarik **txarre**na?
- Zer uste duzu dela **garraio publikoaren** mugikortasunaren gauzarik **onena**?
- Zer uste duzu dela **garraio publikoaren** mugikortasunaren gauzarik **txarre**na?
- Zer uste duzu dela **auto pribatuaren** mugikortasunaren gauzarik **onena**?
- Zer uste duzu dela **auto pribatuaren** mugikortasunaren gauzarik **txarre**na?
- Nolako garrantzia ematen diozu ondorengo mugikortasun alorrak hobetzeari?
 - Oinezko mugikortasun errazagoa
 - Txirringa bidezko mugikortasun seguruagoa
 - Aparkatzeko erraztasun gehiago

Bestelako iradokizunak eta komentarioak.

02. Mugikortasunaren ikuspuntua

02.1 Lezo barruan oinez

ALDERDI ONAK

Herrigunetik desplazatzeko erraztasuna da alderdi onena. Plaza eta inguruko kaleen peatonalizazioak komertzioak, zerbitzuak eta aisia guneak hurbildu ditu. Espaloiak egoera onean daude eta bisibilitate ona bermatzen dute.

ALDERDI TXARRAK

Herrigunean ikusten den arazo nagusia trafiko astun ugarien fluxuak hainbat zonalde arriskutsu bihurtzen dituela da (Pasai Donibanera eta Gaintxurizketa aldera doazen bideak, adibidez).

Herrigunetik urrundu ahala, herriko bideen egoera okertu egiten da. Irisgarritasun maila gutxituz doa eta espaloietan arazoak daude mantenu faltagatik. Hainbat zonalderen konexioa ez da egokia. Adibidez, Donibanera bidean amaitu gabe dagoen zatia.

Bestalde, landa eremuari dagokionez, maiz aipatzen da industriagunean eta Gaintxurizketan dagoen espaloi eta bidegorri falta. Zonalde hauek komunikatu gabe daude herrigunearekin, eta bertako trafiko altuaren ondorioz arriskutsuak direla uste da.

02.2 Lezon txirringaz

ALDERDI ONAK

Bidegorri sarea inguruko herrietara luzatzen da, Erreterria, Pasaia eta Donostia elkartuz.

ALDERDI TXARRAK

Nahiz eta egungo sarea inguruko herrietara iritsi, behin eta berriz aldarrikatzen da konexioak ez direla nahikoak. Sarean zehar etenaldiak daude bidegorrietan. Adibidez, Pasai Donibanera doan bidea amaitu gabe dago, eta horrek segurtasun arazo bat sortzen du. Gaintxurizketara ez dago bidegorririk.

Bestalde, egungo sarearen egoeran hobekuntzak egin behar direla aipatzen da, bai kalteen aldetik eta bai seinale eta informazioaren aldetik.

Txirrindulari eta oinezko zein gidarien arteko arazoak aipatzen dira ere, batez ere araudiaren ezjakintasunagatik eta errespetu faltagatik.

02.3 Garraio publikoa

ALDERDI ONAK

Herrigunean, garraio publikoaren alderdi onenak hauek direla uste da: maiztasuna, puntualtasuna eta geralekuen kokapena. Renfe eta autobusaren bitartez, inguruko herrietara erraz iritsi daiteke, batez ere Erreenteria eta Donostiara.

ALDERDI TXARRAK

Alderdi txarren artean, puntako orduan dagoen eskari altuaren ondorioz, plazen arazoa egoten da; horregatik, Donostiarekin zerbitzu zuzenak eskatzen dira.

Bestalde, hainbat pertsonak kontrako iritziak dituzte geralekuen eta zerbitzu mailaren inguruan. Batzuen ustez, egungo geralekuak ez dira nahikoak eta ez daude mugikortasun urriko pertsonentzat egokituak. Konexioei dagokionez, nahiz eta Erreenteria eta Donostiarantz eskaintza ona egon, Oiartzun, Irun, Hondarribia edota Donostiako Antigua auzoarekin konexio falta dagoela diote.

Gaintxurizketako egoera aipatzen da maiz. Egungo eskaintza urria da, eta dauden geralekuetara iristeko, auto pribatuaren beharra dago. Bestalde, herriko hainbat zonalde elkartzea proposatzen da. Industriagunea, hilerria, Altamira, Gaintxurizketa eta beste auzoak.

02.4 Garraio pribatua

ALDERDI ONAK

Garraio pribatuaren inguruan herriguneko kale barruetan trafiko arazorik ez dagoela aipatzen da. Bestalde, inguruko herriekin konexioa erraza eta azkarra da.

ALDERDI TXARRAK

Herria zeharkatzen duen errepide nagusiak eragiten duen trafikoa aipatzen da arazo bezala, batez ere ibilgailu astunen kasuan.

Horretaz gain, aparkaleku falta da birritan aipatu den arazo bat. Plaza kopuru murriztua dela eta, jendeak bere etxetik urrun utzi behar du kotxea, eta kasu askotan, modu irregularrean aparkatzen da, arauak errespetatu gabe.

03. Ondorioak

Herritarrek ekarpenak egiteko inkesta proiektuan zehar egin den hirugarren galdetegi fasea izan da. Aurretik, inkesta presentzialak egin dira landa lanen fasean zehar, eta hiri barneko eragileekin talde dinamika bat.

Azken honetan ere lortutako erantzunak bat datoz beste dinamiken ondorioekin:

- Herrigunearen tamaina dela eta, oinezko desplazamenduak egitea erraza da. Baina herrigunetik urrundu ahala, bide sarearen egoera okertu egiten da.
- Garraio publikoko eskariak erdiguneko zonaldea ondo hornitzen du, baina ez ordea landa eremua eta industriagunea.
- Gaintzurizketako eremuan ez dago oinezkoentzako biderik ezta bidegorririk ere. Lanerako eta bertan bizi direnentzako auto pribatuaren menpekotasuna dago.
- Herriaren kokapena eta inguruko kapazitate altuko errepide sarea dela eta, auto bidez modu azkar eta errazean egin daitezke inguruko herrietara desplazamenduak. Aldiz, herriko arteria nagusiek kanpoko trafiko altua jasotzen dute, batez ere Portua eta industriagunearekin lotuta daudenak.